



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

**Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailaren
eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean
Hizkuntza politikako gaitan mugaz gaindiko lankidetzak**

Izenpetze ekitaldia **2017-2022 Hitzarmen-markoa**

Baiona • 2017/03/29, asteazkena
11:00etan • Kaserna handiko Bakea aretoa • Platanoen ibilbidea, 4

10 urteko lankidetzak

2007ko otsailean izenpetu zen 2007-2010 epealdirako Hitzarmen-markoak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskararen aldeko hizkuntza politikako gaitan mugaz gaindiko lankidetzak iraunkorra garatzeko borondatea adierazi zuten. Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak elkarlanean gauzatzeko programa zehatzak bideratu ziren, euskararen transmisioa eta erabilpena areagotzeko ahaleginetan.

Lehen epealdi haren bukaeran eta bilan baikorra egin ondoan, izenpetzaileek erabaki zuten hitzarmen-markoa berriz bideratzea 2011-2016 epealdirako, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen hizkuntza politikako gaitan mugaz gaindiko lankidetzak garatzearen aldeko borondatea berretsiz eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortuz.

Bigarren epealdi honen bukaeran, bi izenpetzaileek berriz ere kolaborazioaren balorazio positiboa egiten dute, honako hau azpimarratuz:

- 6 urtetan eta bi partaideek elkarlanean antolatu lankidetzarako fondoari esker, **9.730.000 €** mobilizatu dira euskararen erabilpena eta transmisioaren garapenaren alde aritu diren Ipar Euskal Herriko eragileak eta hauek bideratu proiektuak sustatzeko:
 - 2011 : **52** eragile, diruz lagundu **62** proiektuentzat,
 - 2012 : **52** eragile, diruz lagundu **64** proiektuentzat,
 - 2013 : **51** eragile, diruz lagundu **65** proiektuentzat,
 - 2014 : **56** eragile, diruz lagundu **81** proiektuentzat,
 - 2015 : **53** eragile, diruz lagundu **73** proiektuentzat,
 - 2016 : **58** eragile, diruz lagundu **70** proiektuentzat,
- Elkarrekin burutu ekimenak eta eremu ezberdinetako lankidetzak teknikoak eraman dira, bereziki:
 - 2009an C1 bat mailako euskararen egiaztatze azterketarentzat egin zen bezala, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera B1 mailako azterketa martxan ezarri Ipar Euskal Herrian,



- Helduen euskalduntze sailean, Eusko Jaurlaritzari lotu Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen tresna eta baliabideen azterketak eginez: beka, Euskaltegien finantzamendua eta Administrazioako agente publikoen formakuntza sistemak.
- Ipar Euskal Herrian ETBren hedapena molde digitalean segurtatuz, 2011n hedapen analogikoa itzali delarik,
- V eta VI. Inkesta soziolinguistikoak bideratuz, jakinez 1991 geroztik, 5 urte guzietan inkesta horiei esker, euskaraz hitz egiten den eskualdeetan hizkuntza-gaitasuna eta euskararen erabilera neurtzen direla.
- adierazle-sistema komun bat bideratuz, EEP, EAE, Nafarroa eta EAEko foru aldundien arteko lankidetzak zabalagoaren bitartez, hainbat esparrutan euskararen presentzia eta erabilaren bilakaera modu zehatzago baten bidez neurtzeko xedearekin eta horretarako, Europako finantzaketa lortuz 2016an.

Ebaluazio positibo partekatu honetan oinarrituz, bi izenpetzaileek partaidetza 6 urterako berriz bideratzea ontzat jotzen dute, hau da 2017tik 2022ra.

Bide beretik, bi aldeek berresten dute lankidetzak proiektuak kudeaketa partekatua, koordinatua eta elkarraditua behar duela, partaide bakoitzaren erabaki-autonomia, funtzionamendu-arauak eta jokabide eremuaren mugak errespetatuz.

Mugaz gaindiko lankidetzak hau, erakunde bakoitzak bere aldetik zehaztutako politiketan oinarritzen da:

➔ Eusko Legebiltzarrak, 2013ko irailean berretsitako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean oinarrituz, hartzen dituen orientabide nagusiak finkatzen dituela.

➔ Euskararen Erakunde Publikoa osatzen duten partaide ezberdinek, 2006ko abenduan, Hizkuntza Politika Proiektua onesten zutela, honako erronkak finkatuz:

- Euskararen transmisioari dagokionez, dela lehen haurtzaroaren alorrean, dela irakaskuntzaren edo helduen euskalduntzearen alorrean, euskarazko eskaintza baten garapena bilatuz,
- Euskararen erabilpenari dagokionez, dela bizi sozialaren alorrean, dela aisialdian, dela hedabideetan edo argitalpenean, euskararen erabilpena gizarteratzea bilatuz.

2017-2022 epealdirako elkarlanerako lerro nagusiak

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren egitekoak eta lan-lerroak kontuan harturik, honako alorrean elkarlanean jarduteko borondatea adierazten dute bi izenpetzaileek:

➔ **Mugaz bi aldeetako erakunde publikoek erronka horiei lotutako jarduerak elkarrekin antolatzeko edo sustatzeko konpromisoa hartuz:**

- Euskararen **transmisioa**: erronka honek adin guzietako hiztunen kopurua emendatu nahi du, eta, ondorioz, aitzineko urteetan inkesta soziolinguistikoek agerian ezarri duten bilakaera aldatu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

- Hizkuntzaren **presentzia** eta **erabilera**: euskararen presentzia garatu nahi da bizitza sozialeko alor guzietan.
- Hizkuntzaren **kalitatea**: hizkuntzaren kalitatea zaindu eta areagotu nahi da, ahoz eta idatziz, erabileraren esparru ezberdinetan.
- Gogoia, **aldeko jarrera**: zeharkakoa erronka da eta helburua da aldeko jarrera bultzatzea, gizartearen atxikimendua azkartzea, aitzineko beste lan-sail guzietan eraginkorragoak izateko gisan.

→ Urtero hitzarmen-markoari lotu urteko eranskinak zehazten dituen elkarlanerako modalitate praktikoak definituz:

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko ekimen zehatzak.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren sustapen-lerroak Ipar Euskal Herriko eragile pribatuentzako moldeak.

2017ko Hizkuntza Jarduera Proiektu deialdia

Aurten, 2017ko urtarrilaren 1ean, orain arte ziren 10 herri elkargoek bat egin ondoan, Ipar Euskal Herriko 158 herriak biltzen dituen Euskal Elkargoa sortu da Iparraldean.

Asmoa da, Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikatua eta Euskal Herriko hautetsien kontseiluaren ordez, Euskal Elkargo berri hori EEPko kide bilakatzea 2017ko lehen sei hilabeteetan.

Aldaketa garrantzitsu hori kontuan harturik, EEPren Biltzar Nagusiak 2017ko aurrekontua egutegi atzeratu baten arabera bozkatuko du, Euskal Hirigune Elkargoa EEPn sartzeko prozesuaren bukaeran eta bere aurrekontua bozkatu bezain laster.

Ondorioz, EEP eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin duten lankidetzarako fondoaren bai eta EEPren ekarpenaren bozka ere, Biltzar Nagusiak une horretan egingo ditu, bai eta bi erakundeen arteko lankidetzarako hitzarmen-markoa eta 2017ko eranskinaren onarpena ere.

Bitartean, kontuan hartuz alde batetik eragileei diru-laguntza eskaerak aurkezteko uzten zaien tartea eta bestetik, diru-laguntza eskaerak aztertzeke eta erabakiak hartzeke beharrezkoak diren epeak, EEPk eta Eusko Jaurlaritzak erabaki dute 2017ko Hizkuntza Jarduera Proiektu Deialdia irekitzea eta proiektu ekarle ezberdinak gonbidatzen dituzte beraien proiektuak pausatzerantz ondoko egutegi honen arabera:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Euskararen
erakunde
publikoa



Office public de
la langue basque

2017ko Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren behin behineko egutegia

Irekitzea: **2017ko martxoaren 30a**

Diru-laguntza eskaerak jasotzeko azken epea: **2017ko apirilaren 30a**

Diru-laguntza eskaera txostenen azterketa: **2017ko maiatza/ekaina**

Jarraipenerako Batzordearen elkarretaratzea: **2017ko ekain erditsutan**

Ebazpenaren zabaltzea: **2017ko uztail hasieran**

Proiektu Deialdiaren araudia eta diru-laguntza eskabide txostenak edo/eta argitalpenari lotu dokumentuak www.mintzaira.fr web gunean aurki daitezke edo Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan (Platanoen ibilbidea, 2 - Baiona) eskuratzen ahalko dira **2017ko martxoaren 30etik aitzina.**